

## LEHIAKETA FASEA

Kontrataziorako erabiliko diren irizpideak eta puntuazioa honako hauek dira:

### **GUZTIRA 100 PUNTU**

Langabeziarekin zerikusia duten irizpideak: 40 puntu

- a) Hautapen data aurreko hamabi hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu izana: 10 puntu arte
- b) Azkeneko lan harremana enplegu eskaintzaren data aurreko bi urteetan amaitu izana: 10 puntu arte
- c) Langabezia laguntzarik edo prestaziorik ez jasotzea: 10 puntu arte
- d) Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren edo Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzaren edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen jasotzailea izatea edo Subsidioa jasotzea (langabeziko prestazioa jasotzeko aukera izaterik ez duenean) : 10 puntu arte

Hautagaia eskaintzen den posturako egokia dela zehazten duten irizpideak: 40 puntu

- a) Eskaintako lanpostuari egokitzen zaizkion ezagupenak edo lan trebetasunak izatea: 10 puntu arte
  - 2 urte  $\geq$ : 10puntu
  - Urte bete  $\geq$ : 5puntu
  - Hileko: 0,4puntu
- b) Ardurapean seme-alabak edukitzea edo eta kargak izatea (hipoteka): 10 puntu arte.
  - Seme-alabak  $\geq 3$  : 7puntu
  - Seme-alabak  $< 3$  : 4puntu
  - Hipoteka izatea: 3puntu
- d) Emakumea izatea: 5 puntu
- e) Hogeita hamabost urte baino gutxiago edo berrogeita bost urte baino gehiago izatea: 5puntu
- f) Pertsona desgaitua izatea edo adimen osasuneko arazoak izatea: 5 puntu
- g) Euskararen ezagutza: 5puntu
  - Perfila 1 edo azterketa gainditua: 5 puntu
  - Ikastaroak eginak: 1 puntu
  - Ikasten ari dena: 1 puntu

Aretxabaletan edo Debagoienan erroldatua egotea: 20 puntu

Aretxabaletan 3 urte  $\geq$ : 20 puntu

Aretxabaletan urte bat  $\geq$ : 10 puntu

Debagoienan urte bat  $\geq$ : 2 puntu

\* esperientzia baloratzekoan kontutan hartuko dira honako lan kontratuak: garbiketa, mantentze lanak, instalakuntza, obrak (kalean edo eta eraikuntza barruan egindakoak); arreta lanetan ibili diren lan kontratuak ere puntuatuak izango dira.

Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzak lortu dituen puntuak batuta aterako da haren azken kalifikazioa, eta batura horrek erabakiko du izangaiak lehenesteko hurrenkera.

Bi izangaiek edo gehiagok puntu kopuru bera izanez gero, hurrenkera Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a) artikulua araberaren egingo da.

Epaimahaiak Aretxabaletako Udaleko organo eskudunari bidaliko dio akta, aurkeztutako hurrenkerekin.

Kontratazioa

Organo eskudunak, zerrendako hiru lehenak kontratatuko ditu azaroaren hamabostetik aurrera eta bost hilabeterako.